


Atxerito Mailoa Irailak 23 larunbata



Atxerito Mailoa (2374m), Hueskako Pirineoan kokatuta dago, mendebaldeko bailaretako gailurretan politenentakoa da. Piramide formako gailurrak zenbait tokietatik ezagutarazi daitekeen ezaugarria ematen dio. Honetaz gain, mendizaleon begiradak eta igotzeko desioak pizten ditu.

Anso eta Hecho bailaren artean dago, Leskuneko zirkotik ere oso gertu. Kokapen honek hainbat tokietatik igotzeko aukera ematen ditu Linza, Guarrinza edo Masousako zubitik adibidez. Linzatik igotzen den bide normala da guk aukeratu duguna, honek ere ibilbide zirkularra egiteko aukera ematen digu.

Irteera ordua: 7:00etan Estadioko atetik. Itzulera 20:00etan Gasteizen.

Zailtasuna: **Atxerito** Mailoaren igoeraren zailtasunak arrokaz osatutako ibilbidean datza. Gure kasuan teknikoki erreza den igoera egingo dugu. Desnibel fuerteak dauzkaten maldak izanik.


Ibilbidea: Linzatik (1340m) Paso del Caballo (1427m) deritzon bretxatik haegoaldeko norabidean igaroko gara. Hona heltzeko erreka bat pasatu eta malda fuerte bat igo beharko dugu, hasiera hau Camilleko ibilbidearekin bat egiten du.

Laister behin goian gaudela, Camille alde batera usten dugu eta Gamuetako basora jeisten dena. Ezkerretara jarraituko dugu arrokazko hormak jarraituz. Paso del Osora (1637 m) igotzen den bide bat jarraituko dugu. Bidea, pagadiz osatutako bailaratxo batetik igarotzen da.

Puntu honetan, Gamuetako hinebralekin bat doan bidea alde batera utziko dugu eta ipar-ekialderuntz joko dugu eta igoerren azken maldeei aurre egingo dizkiegu.

Behin gailurran gaudela, jeitsierari ekingo diogu. Petretxemako arroiletik hain zuzen igaroko gara, bertan sartuta gaudela Foya del ingenieroruntz joko dugu.

Bailara hontatik aurrera eginez Linzako refugiora helduko gara, bertan autobusa itxaroten izango dugula.



Lurzorua:: Mixtoa arroka eta belarra, zonalde kárstikoa izanik arroako, basoetako eta larre inguruneak topatuko ditugu. Nahiz eta, gure ibilbidea teknikoki erraza izango den.

Erritmoa eta ordutegiak: Denok lasai eta gustora joateko erritmo bat eramango da, hau da, taldera moldatutakoa, ez ditugu

markak hautsiko. Ibilbidean zehar hainbat geldiune egingo dira. Egunean zehar ez dira oso luzeak izango ez ozteko, eta luzeago bat bazkaltzeko.

Beharrezko materiala:

- Arropa beroa
- Uretako Txaketa
- Txanoa eta guanteak
- Eguzkirako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsietarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendi edo trekking-eko botak "eginak" sola berriarekin.
- Eguna pasatzeko jana eta edaria.

Zuen gidak

Ibai Rico: Geografoa, glaziologoa eta geografi irakaslea UPVn Patagonian, Artikoan eta Himalayan ikertzen ibili da. Alpinista eta eskalatzaila hainbat mendikate bisitatu ditu, baita pirineoak puntarik punta HRPtik zeharkatu ere. Alpeetan, Kilimanjaron, Kaucaison, Norbegian eta Atlasean izan da lanean beste batzuen artean.

Unai García: Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Alpeetan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoreskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendieetatik.